


Euskal AEn, emakumeak dira nagusi osasun arloko lanbideetan

Emakumeak maizago joaten dira lehen mailako arretako kontsultetara, eta gizonak, berriz, sarriago ospitaleratzen dira

Bihar, apirilaren 7an, beteko den Osasunaren Mundu Egunaren barruan, Eustatek laguntza-baliabideei, osasun-arazoen arretari eta osasun-gastuari buruzko datu garrantzitsuak zabaldu ditu.


Osasun-jardueren adarrak 62.078 pertsonari **ematen die enplegua**, hau da, Euskal AEko enpleguen % 6,7 hartzen du, “2021eko Osasunaren panoramak” erakusten duenez. Pertsona horietako gehienek (% 55) ospitale-jardueretan egiten dute lan, eta % 75 emakumeak dira.



Osasun-laguntzarako eskuragarri dauden giza baliabideen berri ematen duen **elkargokide profesionalen kopuruak**, erizaintzako langileak aipatzen ditu kolektibo nagusi gisa (16.826), eta ondoren medikuntza (12.045), farmazia (3.196), fisioterapia (2.887), odontologia (1.856) eta psikologia (1.849) arlokoak etorriko lirateke. Giza baliabide guztietan, emakumeak dira nagusi, erizainen kasuan batez ere (% 90). Konparazioz, **Euskal AE** aktibo dauden eta elkargoko kide diren medikuntzako profesionalen (5,5 1.000 biztanleko) eta erizainen (7,7 1.000 biztanleko) **tasa handienak dituzten autonomia erkidegoen artean dago**.

Feminizazio hori Osasun-zientzietako unibertsitate-ikasketetara hedatzen da. 2018/2019 ikasturtean, emakumeak psikologian **graduatuak** % 86 izan ziren, % 85 erizaintzan, % 78 farmazian eta % 71 medikuntzan.

Hornidurari dagokionez, Euskal AEn 39 **ospitale** zeuden 2018an. Ospitale handienak publikoak dira: bik 800 ohe baino gehiago dituzte, hiruk 400 baino gehiago eta beste bik 200 baino gehiago.



Euskal AEko ospitale-sareak 7.010 **ohe** zituen 2018an. 1.000 biztanleko martxan dauden oheen tasa (3,21) Europar Batasuneko batez bestekoaren azpitik dago (5 ohe), baina Espainiakoaren gainetik (2,98). Gainera, **eguneko ospitaleko** lanpostuak, 1.375 2018an, ospitale publikoetan gero eta pisu handiagoa duen beste baliabide bat dira, ohiko ospitalizazioaren alternatiba gisa.

Generoak aldeak markatzen ditu osasun-zerbitzuen erabileran eta erikortasunean

Emakumeak maizago joaten dira **lehen mailako arretako** kontsultetara (batez beste 5,7 aldiz urtean) gizonak baino (4,5), eta gauza bera gertatzen da erizaintzako kontsulten kasuan. Eskera handiena adin goiztiarretan eta zaharrenetan gertatzen da; izan ere, 80 urteko eta gehiagoko taldeak urtean 10 kontsulta baino gehiago egin ditzake.

Lehen mailako arretako **osasun-arazo** ohikoenak aldatu egiten dira adinaren arabera: **15 urtetik beherako** pertsonen artean arnas aparatuari dagozkionak dira (goiko traktuko infekzio akutua eta asma), **15-34 urtekoen artean** larruazaleko gaixotasunak, **35-64 urtekoetan** lokomozio-aparatukoak eta **65 urte eta gehiagokoetan**, zirkulazio-aparatukoak (hipertentsioa) gizonengan eta lokomozio-aparatukoak emakumeengan.

Ospitaleen arloan, 2019an, **ospitaleetako erikortasun-tasa** 11.282koa izan zen 100.000 biztanleko Euskal AEn, handiagoa gizonen artean (11.765) emakumeen artean baino (10.826), besteak beste, azken urteetan haurdunaldi, erditze eta puerperio kopuruak etengabe behera egin duelako; alde hori are handiagoa izango litzateke arreta mota hori kontuan hartuko ez bagenu (9.330).

Emakumeak, erditze, haurdunaldi eta puerperioaz gain, bat datoz gizonekin **ospitaleratze arrazoi** nagusietan: zirkulazio-aparatuko, digestio-aparatuko eta arnasketa-aparatuko gaixotasunak ospitaleratzeen % 38,2 izan ziren 2019an; hiru gaixotasun-talde handi horien prebalentzia handiagoa da gizonen artean.

Adinari dagokionez, **15 urtetik beherako**en artean ospitaleratzeko kausarik ohikoenak arnas aparatuko gaixotasunak dira; **15 eta 34 urte** bitartekoetan, haurdunaldia, erditzea eta puerperioa, emakumeen artean, eta traumatismoak eta lesioak gizonen artean; **35-64 urte bitartekoetan**, digestio-aparatuko gaixotasunak; eta ospitaleratzeen % 50 baino gehiago hartzen duten **65 urte eta gehiagokoetan** zirkulazio-gaixotasunak.

Osasun gastuak % 4,7ko hazkundera izan zuen 2019an, urte horretako BPGren hazkunderaren gainetik (% 3,3).

Euskal AEk 7.042 milioi euro bideratu zituen osasunera 2019an, aurreko urtean baino % 4,7 gehiago, hau da, BPGren % 8,9 eta biztanle bakoitzeko 3.216 euroko gastua eragin zuen. Gastu horren % 68,9 sektore publikoak finantzatu zuen, eta % 31,1 sektore pribatuak.

Euskal AEko pertsona bakoitzeko osasun-gastua OCDEko eta Espainiako batez bestekoaren gainetik hazi da azken urteotan, erosteko ahalmenaren parekotasunean PPC (\$). 2019an 4.871 PPC (\$)koa zen, OCDEren (4.224) eta Espainiaren (3.616) batez bestekoen gainetik.



Funtzioen araberako gastuaren banaketa desberdina da finantzaketa-iturriaren arabera. Familiak egin zuten gastuaren zatirik handiena sendatzeko laguntza anbulatorioan (% 38,4), produktu medikoak eskuratzean (% 28,5) eta iraupen luzeko ospitale-zerbitzuetan (% 15,1) egon zen. Bestalde, administrazio publikoek gastu gehiena sendatzeko arretara (% 50 baino gehiago), ospitale arretara (% 29,5) eta anbulatorioko arretara (% 26,8), bideratu zuten, eta ondoren, produktu medikoak (% 11,1) eta iraupen luzeko ospitale-zerbitzuak (% 10,3) etorri ziren.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62